

Funtsezko jarduerak

Hasteko, gure karkasen **diseinuak** besteengatik ezberdintzen gaitu, arrazoi hauengatik:

- Banbua biodegradagarria da eta kalitatea ezin hobea da. Horrexegatik, gure **hornitzaileek kalitate oneko banbua** izan behar dute.
- Zuhaitzaren **zizelkadura** gure diseinua besteetatik bereizten du.

Gure enpresa funtziona dezan ezinbestekoa da boligrafo enpresak gu nor garen jakitea eta gure produktuaren berri izatea. Hori lortzeko, estretegia hauek erabiliko ditugu:

- **Boligrafo enpresa guztiekin kontaktuan jarriko gara.** Horretarako, bilera baten bitartez gure **produktuaren maketa eta adibide** bat erakutsiko diegu. Hortaz aparte, gure lan egiteko era eta plangintza azalduko diegu **aurkezpen** baten bitartez. Horrela, gurekin lan egitekotan, enpresaren funtzionamendua ezin hobeto ezagutuko dute.
- **Agenda 21** eskola guztietan dagoen proiektu bat da. Proiektu honen helburua planeta zaintzea da eta hainbat tailer eta aktibitate egiten dituzte ikasleek planeta hobetzeko kontzientzia izateko. Agenda 21 proiektuaren bitartez, gure produktua eskola guztietan aurkeztu ahal izango dugu. Horrela, nerabe guztiek gure produktuaren berri izango dute.

